

EMAKUMEZKOEN 2017KO BAZTANGO BINAKAKO FRONTENIS TXAPELKETA

Izena ematea:

- 2016ko abenduaren 4ra arte.
- Datuak: Bikoteko bi pilotarien izen eta bi abizen, herria, telefonoa eta helbide elektronikoa. Zehaztuko da zein mailatan izena ematen duen bikoteak. Datu horiek kirolak@baztan.eus helbide elektronikora igorriko dira.

Txapelketako mailak: 1. eta 2. maila.

Arauk:

1. Txapelketan bi maila daude: 1. eta 2. Pilotariak, izena ematerakoan, zehaztuko dute zein mailatan parte hartuko duten.
2. Partidak jokatzeko lekua eta eguna:
 - Partidak jokatzeko frontoi ofizialak Oronozkoa, Arizkungoa, Erratzukoa eta Amaiurkoa izanen dira. Dena den, partida bateko bi bikoteak ados jarriz gero, Baztango bertze edozein frontoian jokatzeko ahal da partida. Frontoia erabiltzeagatik ordaindu beharrekoa, edozein frontoia dela, baita Oronozkoa, Arizkungoa, Erratzukoa eta Amaiurkoa ere, jokalariei kontura izanen da. Frontoiak ez dira erreserbatuak egonen partidetarako.
 - Partidak jokatzeko egun ofiziala larunbata izanen da. Dena den, bi bikoteak ados jarriz gero, partida bertze egun batean jokatu daiteke. HALA EGINEZ GERO, KONTUAN EDUKI BEHAR DA EMAITZA, NAHI ETA NAHI EZ, JARDUNALDIAREN EGUN OFIZIALEKO ONDOKO ASTELEHENA BAINO LEHEN KIROL BULEGOAN EGON BEHAR DUELA. Hau da, jardunaldiko egun ofiziala ilbeltzaren 7a balitz emaitza guztiak egon beharko lukete kirol bulegoan ilbeltzaren 9a baino lehen.
 - Finalurrekoak eta finalak antolatzaileak seinalatzen duen lekuetan, egunetan eta orduetan jokatuko dira. Ez da aldaketarik onartuko.
3. Arau teknikoak
 - TXURIZ jantzita jokatu da.
 - Maila bakoitzean talde bakarra izanen da.
 - Joko-sistema maila bakoitzean: Sailkapen-fasean DENAK DENEN AURKA arituko dira, Lehendabiziko postutan sailkatu diren lau bikoteek jokatu dituzte finalurrekoak (1.-4./2.-3.). Irabazleek jokatu dituzte Finalak.
 - Partidak 30 tantutara jokatu dira.
 - Sakea 1. mailan 4tik 4ra izanen da eta 2. mailan, berriz, 3tik 3ra; 7a pasa izanen da bi mailatan.
 - Sailkapenerako irizpideak:
 - Partida gehienak irabazi dituen bikoteak.
 - Berdinketa baldin bada kontuan hartuko dira bikote horien arteko partiden emaitzak.
 - Hala ere berdinketak segitzen baldin bada kontuan hartuko da tantoak alde tantoak kontra beren arteko partidetan.
 - Partida bertan behera uzten duen bikoteari, edozein arrazoia dela, partida galdutzat emanen zaio, momentu horretan zuten tantu alde eta 30 tantu aurkariaren alde.
 - Partidara ez den agertzen bikoteari partida, hori egiten duen lehendabiziko aldia baldin bada, 30-0 galdutzat emanen zaio, eta bigarren aldia baldin bada, berriz, txapelketatik kanpo geldituko da.
 - Epaille lanak: partida bakoitzean BIKOTE BAKOITZAK EPAILE BAT IZENDATUKO DU PARTIDARAKO (bi epaile egonen dira).
 - Materiala: pilotak, paxak... Txapelketarako BEHARREZKO MATERIALA partidan arituko diren BI BIKOTEEK ERAMANEN DUTE partidara. Bote normaleko fronteniseko arauzko pilotak izanen dira.
 - Ordezkoak:
 - Bikoteko pilotari batek ezin badu jokatu ordezkoa jartzen ahal du.
 - Txapelketan ari den pilotari batek ezin du, inola ere, txapelketan ari den bertze pilotari bat ordezkatu.
4. Egutegia: Txapelketa 2017ko ilbeltzaren 7an hasiko da.
5. Aste bakoitzeko emaitzak. Partida bakoitzeko pilotari batek ardura hartuko du partidan izandako EMAITZA bidaltzeko kirol bulegora posta elektronikoen bidez (kirolak@baztan.eus) ASTELEHENA BAINO LEHEN. Hau da, ilbeltzaren 7an jokatu beharreko partida guztien emaitzak egon behar dute kirol bulegoan ilbeltzaren 9 baino lehen, bertzenaz, partida ez jokatu bezala hartuko da.

ANTOLATZAILEA:



BAZTANGO UDALA

6. Antolakuntzaren eta pilotarien arteko harremana BAKARRIK posta elektronikoaren bidez egingen da.
7. Txapelketaren informazio guztia Baztango Udaleko web orriko kiroleko atalean egonen da. (<http://www.baztan.eus/ayuntamiento/zerbitzuak/kirol-zerbitzua/kirol-jarduerak>).
8. Antolatzaileak pilotarien baimena du pilotari bakoitzaren datu pertsonalak gainerako pilotariei helarazteko.
9. Antolatzailea ez da txapelketan gerta daitekenaren erantzule izanen.
10. Antolatzaileak edozein arau aldatu edota berri bat sortzeko eskubidea du.
11. Arau hauek edota antolakuntzak eskatutakoa betetzen ez dituzten pilotariak kanporatuak izanen dira.

